



INGURUGIROKO

HEZKUNTZA ETA

ONDAREEN

BALORIZAZIOEN

PIRINIETAKO ESTRATEGIA

Interreg
POCTEFA
ADNPYR



AGIR pour la
BIODIVERSITÉ



Generalitat
de Catalunya

Fundació
Catalunya
La Pedrera



ANDORRA
RECERCA +
INNOVACIÓ

SEO
BirdLife

Nafarroako
Ingurumen
Kudeaketa, S.A.



Gestión
Ambiental de
Navarra, S.A.

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Co-financeurs



Pirinio Bizirik hezkuntza sareko
urteko topaketa

Pau (Frantzia)
2021ko 30/11etatik a 02/12etara





Munduak orain dituen erronkei aurre egiteko lurralde guztien eta haietako bakoitzeko eragile guztien konpromisoa behar da. Nazioarteko erakundeek argi dute mundu osoan ingurumena jasaten ari den degradazioari aurre egin behar zaiola ingurumenaren gaineko kontzientzia eta sentiberatasuna sortuko dituen ingurumen heziketa batetik, gizarte, hezkuntza eta ekonomiaren maila guztietara iritsiko den garapen jasangarria lortuko bada.

Ingurumen heziketa horrek “ingurumenak dituen arazoak aurkezteko eta konpontzeko eta ingurumenaren kalitatearen kudeaketan era arduratsuan eta eraginkorrean parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, balioak, jarrerak eta gaitasunak” eskaini behar ditu. “(UNESCO 1977). Diziplina zientifiko guztien parte-hartzea eta inplikazioa behar ditu. Beraz, diziplina anitzekoa eta zeharkakoa da. Prozesu sistemikoa da, dimentsio kultural bat hartzen duena, eta herritar guztiei begira egiten dena. Eragina du helduengan bezala txikiengan ere, haien bizitzaren egoera guztietan (lanbide, gizarte nahiz familiaren arloan). Guztion erantzukizuna da (estatuak, erkidegoak, elkarteak, herriak, etab.).

Pirinioen hedadura osoak 3 herrialde eta 6 erregio edo autonomia erkidego ukitzen ditu. Mendilerroko naturaren oparotasun bereziak eta hauskorak eta hura ukitzen duten etorkizuneko proiektuek kontzientzia hartze azkarra eta kolektiboa eskatzen dute.

➤ Lehen I.E.:

Pirinioetako kudeaketa jasangarria sustatzea, indarra emanaz koordinazio dinamikei, herritarren parte-hartzeari (bizilagunak, bisitariak) eta landa munduaren eta naturaren arteko loturak berritzeari.

➤ 2. I.E.:

Sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko ekintzak sustatzea pirinioetako jardueren eremu sozioprofesionalean, batez ere turismoaren sektorean, erdigunean jarriz ingurumen balioak, biodibertsitatea eta osasuna-ingurumena lotura.

➤ 3. I.E.:

Administrazioa/erabakitzaileak eta gizartea inplikatzea klima aldaketaren arabera egokitzeko eta haren eraginak arintzeko ekintzetan

➤ 4. I.E.:

Ingurumen heziketak pirinioen garapen jasangarrian duen eragin onuragarria balioan jartzea.

➤ 5. I.E.:

Ezagutza komunikatzea eta partekatzea





Pirinioetako Lurraldeetako Heziketa eta Prestakuntza honek errealitateari atxikia behar du izan, eta haien nortasunaren osagaia den ondare anitzarekiko loturak berritzeko baliagarria izan behar du. Beti ere, ahanzi gabe teknologia digitalak egun zabaltzen dituen aukerak. Eztabaida eta lankidetzaren esperientzia tokian bertan ezagutu eta bizitzeaz gain, eremu digital horretako inbertsioa eta eduki egokituen ekoizpena ere sustatuko dira, ondarearen transmisio bizkorreko eta lurraldearen hurbilpen integratuko eredu berrietarako bektoreak baitira.

Ingurumen orekatuaren zaintzaren axiomatik harago, une honetan aintzat hartu behar da lurralde ondare bizi eta dinamiko bat zaintzea erronka garrantzitsua dela Pirinioetako ekintza publikoari edukia eta zentzua emateko.

Pirinioetako lurraldeetako heziketak eta prestakuntzak eginkizun gakoa izaten ahal dute kontzientzia berri hori atxikitze aurrera eraman behar den prozesuan. Horretarako, lurraldeko eragileek lankidetzaren esparru formalizatu anitz eratu behar dituzte, beren ekintzak epe luzera ahalik eta herritar gehienengana irits daitezten: eskualdeko sektore ekonomikoekiko lankidetzaren, lanbide heziketako sektorearekiko lankidetzaren, estatu mailako hezkuntzan eta herri hezkuntzan ari diren federazioekiko lankidetzaren...

Jarduteko bost ildo estrategiko zehaztu dira, loturak eginez Gaiak/Arloak/Herritar hartzaileak, Pirinioetako lurraldeen heziketarako eta prestakuntzarako ekintzen ikusgarritasuna eta eraginkortasuna sustatzeko asmoz.



➤ **Ingurumen hezitzailea: lurraldeko hezitzailea eta bitartekaria**

Ez, orain dela 30 urtetik hona, ingurumen hezitzailea ez da ume txikiarentzako natura animatzaile soila. Bitartekaria da, gaitasun eremu anitz mugiarazten dituen, herritar mota anitzekin. Egiatzko eragilea da, lurraldearekin eta ingurumenarekin dugun harremana garatzeko. Bitartekaria da, gizarte zibilaren eta zientziaren munduaren arteko bitartekotza egiten duena, etorkizunerako behaketak eta premiak seinatzen dituen.

Pirinioetako ingurumen hezitzailea, aldi berean, kanpo hezitzailea da eskoletan, gida turistikoa helduentzat, bitartekari zientifikoa ikasleekin, bere lurraldearen historialaria, eta kontu-kontalaria zaharrentzat. Bere lurraldearen historia kontatzen du ikuspegi hezigarria emanaz eta haren interpretazioa eskainiz. Sozioprofesionalei ere eskaintzen die bere ekarpena, prestakuntzaren esparruan edo erabaki partekatuetako prozesuen testuinguruan. Publikoari bere inguruaren ezagutza hunkigarria eskaintzen dio.

➤ **Pirinio bizientzako heziketa**

Ingurune hori aldi berean da:

- Garapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako lekua,
- Gainerako erabilzaileekin batera bizi beharreko alderdi anitzeko espazio bat
- Baliabide ugariko ondarea, asko edo gutxi berriztagarriak,
- Bizi ingurune konplexua norbanakoarentzat, non espezie anitz interakzioan ari diren,
- Munduko ingurumenaren zati ñimiño baina oso preziatu bat.

Ingurumen heziketaren euskarri pedagogikoa ere bada, aukeran eskaintzen duena:

- aurkitzea.
- Harritze.
- espiritu kritikoa zorroztea eta kokatzea eta ekiteko jarrera hartzea





Auzi ugari daude jokoan, batzuetan kontrajarriak badira ere. Garapen leku hori, kultura arrago hori, ondare hori, ezin da tratatu teknologia egokituetan oinarritutako metodo hutsak erabiliz, besterik gabe. Aldaketa sakonak egin behar dira gure portaeran, kultura berri bat eraikitzeko, ekologikoaren, kulturalaren, sozialaren eta ekonomikoaren arteko oreka eta sinergiak etenik gabe bilatzeko bidean.

➤ **Zentzu horretatik, ekintza hezigarrirako aukera ugari eskaintzen ditu Pirinioak.**

Pirinioko mendilerroak substratu, paisaia eta mikroklima anitz ditu. Badira espezie bizidun anitz (3.500), haietako batzuk oraindik ere erregistratu gabeak, eta beste hainbat betiko galtzeko zorian daude. Lotura kulturalak aise agertzen dira mendilerro osoan barna, ipar-hego ardatzen inguruan, administrazio-antolamenduen gaintetik ere. Mediterraneoetik Atlantikoraino, mendi-haranek, guztiak desberdinak izanik ere, mendiko kulturaren arrago bakar batean, baliabide naturalen usadiozko erabileran oinarrituta aurkitu dute garapen ekonomikoa: zur-egurrak, ura, mineralak, etab., betiere abeltzaintza ibiltari estentsiboari lotuak. Gaur egun, ordea, aldaketa handiak sumatzen dira, eta ekonomia pirenaikoaren % 70 inguru turismoaren sektorearen baitan dago. Badira bi arazo handi, eragin handia dutenak, eta are handiagoa izanen dutenak, gure bizimoduan eta gure jardueretan: klima-aldaketa eta biodibertsitatearen higadura.

- Lurralde batean jokoan diren auzi guztiak ulertzeko eta ekiteko gaitasuna duten herritar arduratu eta arduratsuentzat.

Ingurumen heziketaren helburua da norbanakoak heztea beren kabuz arrazoitu eta erabaki ahal izan dezaten, beren hautuek, hemen eta beste leku batzuetan, orain eta etorkizunean, izanen dituzten ondorioak kontuan hartuz. Xedea da garapen jasangarrian oinarritutako gizarte eredu bidezko eta solidario batean inbertitzeko prest dauden lurraldeko eragileak heztea. Ibar piriniotarren garapenean parte hartzea pentsatu eta ekiten duen pertsona bakoitzaren esku dagoela aitortzea da.

3



- Pirinioetako mugaz gaindiko kontzientziatik abiatuta, planeta osoko kontzientziaren bidean.

Gure ekintzek, orain globalizazioaren oihartzunak indartuta, ondorioak eragiten dituzte, mendiz bestalde, edo munduaren beste puntan, bizi diren pertsona nahiz inguruneetan. Ingurumen heziketaren asmoa da pertsonak kontzientziatzea gu bizi garen lurraldeak elkar lotuta dauden entitate zabalago batzuetako zatiak direla. Pirinioak dira lurralde global koherente baten adibidea. Lurralde zehatz baten kontzientzia hori lurralde zabalago batera hedatu daiteke, edo ezaugarri desberdinak dituen lurralde batera. “Tokiko” heziketa hori “munduko” heziketa bihurtzen da, herritarraren kontzientzia mundutarra garatzen duena.

➤ **Pirinioetako Lurraldeetako Heziketa eta Prestakuntza honen helburuak honako hauek dira:**

- Alde batetik, Pirinioetako lurraldeen kudeaketa integratua sustatzea, koordinaziorako, tokiko herritarren parte-hartzerako eta ondarearekiko loturak berritzeko mekanismoak indartuz.
- Beste aldetik, mendilerroaren arazo nagusiei buruzko sentiberatasuna eta prestakuntza lantzeko ekintzak sustatzea mugaz bi aldeetan, besteak beste, klima aldaketa eta biodibertsitatearen galerari buruz, Pirinioetako ekonomiaren eragileentzat (nekazaritza, turismoa, energia, etab.) erabakiak hartzeko ardura dutenentzat (hautetsiak eta toki administrazioetako teknikariak) eta Pirinioetako bizilagun nahiz bisitariarentzat.

Konbinazio horretan gauzak egoki eginez, kasu bakoitzerako berariaz eraturako programak eta ekintzak diseinatu eta aurrera eramaten ditugu, betiere koherentzia globalari eutsiz, populazioa bere bizilekua den lurraldean integratuz, eta kudeaketa jasangarriko tresnak eskainiz.

4

